

**GEORGES LACOMBE (1879-1947) EUSKALTZAIN
ZENAREN LANAK ETA GUTUNAK**

Piarres Xarritton

Aita P. Lafittek eta Odon Apraizek aipatu digute edo eginen Georges Lacombe zena, berek ontsa ezagutu dutena. Nik aldiz bera ez dut behinere ikusi.

Ezagutu ez duzun idazle bat ezagutu nahi duzularik, haren liburuen ondotik bazabiltza lehenik. Oraikoan aitortu behar dugu, euskal erakustoki huntan berean dagon bibliotekako fitxategiari so bat egiten badiogu, Georges Lacomben izenean ez dugula liburu bihirik aurkituko. Bainan ez, egia erran, liburu bat aurkitzen dugu, Henri Gavel adixkideak eta biek, 1937 an Baionan, argitaratu zuten gramatika; dena ere bururatu gabe utzia: "Grammaire Basque", Tome I, premier fascicule.

Bizkitartean Jon Bilbaoren Bibliografia Nagusian, Georges Lacomben izenak 200 artikulua badauzka. Zerbait baita, ezen artikulua hoik, askotan guziz laburrak badira ere (batek hasteko 7 lerro ditu bakarrik: P. Labrousche eta P. Yturbiden heriotzeaz, "Revue Internationale des Etudes Basques" 1922, p. 112), denetara bizpalau liburu gotorren ekaia eta mamia badaukate. (Ikus "Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco", Edit. Auñamendi, Jon Bilbao, Bibliografia, Tomo VI, p. 551-554). Uzta eder horren ezpalkatzera saiatuko gara. Jon Bilbaoren lanaz bestalde, baliatuko ditugu ere aita P. Lafittek euskaltzain sartzeko egunean eman hitzaldia (Donostian 1949-XI-25, Baionan "Le Courrier" moldiztegian urte berean inprimatua) eta Henri Gavel zenak, bere adixkidea galdu zuelarik eskaini zion artikulua ("Eusko Jakintza" I, p. 495-503, Baiona, 1947).

Esokutan dauzkagu, gaineratiko, Georges Lacomben

beraren 100 bat eskutitz. Hautarik gehienak (76) Martin Landerretche euskaltzain zenari, 1906 etik 1919 rat arte bidaliak, aita P. Lafittek argitaratu zituen duela 10 urte Baionan (Bulletin du Musée Basque, 3e période, n.º 18, 19, 20, Bayonne 1968). Bainan baditugu ere beste batzu argitara gabeak: 12, Azkueri igorriak, 1905 etik 1935 erat arte, Arana Martija adixkideak bildu dizkigunak eta beste 12, P. Broussainen paperetan aurkitu ditugunak, 1903 tik 1921 erat artekoak.

Haste hartan, "Chants populaires du Pays Basque", Salaberryren liburuan ikasi kantuetarik hasi bazen euskarari ohartzen Georges Lacombe gaztea (ik. H. Gavelen artikulua, 492 or.), laster abiatu ere zen, ikasle lagun zenbaitekin orduko euskal pesta handietan. Halako batez zuten ezagutu Urruñan, 1898 an, Azkuek eta Broussainek (ik. Azkueren hitzaldia G. Lacomben euskaltzain sartzeko egunean, "Euskera", 1921, II n.º 2, 62 or.). Laket zitzaion Parisen berean ikasle gazteari, euskaldun lagun gazte, indartsu, pilotari, kirolari guziekin kurutzatzea: 1903 eko aboztuaren 8 an eta urriaren 6 an, bere osaba F. de Saint Jayme maite eta alegerari aipatzen dizkio Barrenechea, Salazar, Chaparta Otegui, Chiquito Berastegikoa eta Landaboure delako bat. Bainan ordukotz bere euskalari kezkek ere nabari dira, Piarres Broussain jaun mediku euskaltzaleak igorri dion gutunaz mintzo baita lehen eskutitzean: Euskaltzaleen Biltzarra hiltzerat omen dohala, hanbat hobe, ez dio Lacomberi elkarte "grotesko" horrek dolurik egiten. Beste funtsezko berri zerbait egin beharko da Hazparneko "euskarologoarekin".

Hiru xede handi izanen ditu elkarte berriak, "zientifiko", "praktikoa" eta "literarioa" ager dadin. Eta gaur erran dezakegu, Georges Lacombe berak ez dituela behinere helburu nagusi hoik ukatu. Gogoan har detzagun bere bizian parte hartu duen elkarte bakoitzean ibili urratsak: Euskaltzaleen Biltzarrean lehenik —Biltzar "grotesko" horren buruzagi izan baitzen bera 1911-1912 an— "Cercle d'Etudes Euskariennes", Baionako taldetxoan gero, "Société de Linguistique de Paris" delakoan ere, eta azkenekotz Piarres Broussainen aljian gure Euskaltzaindi huntan, 1921-1947.

Haste hastetik aipu dizkigu bestalde gure gizonak, beti ainitz interesatuko duten jakintsunen arteko eztabaidak eta batailak: "Broussaini aipa ozu, dio osabari, Julien Vinson,

Hyacintheren semeak, gure Azkuberi (sic) eman dion airaldia". Airaldi edo "engueulade" horrek gogoratzen omen dio gure euskalari gazteari, Bonaparte printzeak eta Van Eys "dibinoak" ukan zuten aharraldi gogorra.

Hain xuxen urte berean, aboztuaren 4 an, Broussaini berari idazten dion eskutitzean aipu dizkigu bere lehen euskara lanak: "Eskualdunaren" kolezio osoa badauka, 1896 ez geroz eta "Fedearen propagaziorako" aldizkaria bildu beharrez ari da, hurbiletik nahi baititu ikertu eta lantu.

Van Eys eta Charenceyren liburuak aurkitu ditu Pariseko Biblioteka Nazionalean eta Azkuek naski gogorazi dio lan bat (Azkueri gutuna 1905-V-20) Broussaini hunelaxe aipatzen diona: "Je turbine beaucoup l'euskère à la Bibliothèque Nationale. J'espère dans un mois commencer la publication, "zathika", de mes "basquistants contemporains", travail fort long puisque je veux le faire consciencieusement et lire tout ce qui a été écrit par les auteurs que j'étudierai".

1907 an, Julio Urquijok eskainiko dionean "Revue Internationale des Etudes Basques" aldizkari berriaren idazkari-tza, erran dezakegu gaurko euskalari handien berri zehatzak biltzeko xede hori bederen betetzen ahalko duela 1907 tik 1936 ra, Georges Lacombe zenak.

Hor dira ezen, lehen zenbakitik eta jaunen jaunagandik hasi-ta, L. L. Bonaparte printzea eta hunen etsai Van Eys, "Jonkher maitatua", bai eta Webster eta Stempf, Luchaire eta Jullian, Dodgson eta Urtel, Darricarère eta Landerretche, Hérelle eta Rousselot. Bestalde "Journal de Saint Palais" bere berean eta "Euskeran" eta "Gure Herrian" aurki genetzazke Charencey Kondeari, Piarres Broussain adixkide minari eta Julien Vinsoni eskaini lerroak.

Oro baino gorago ezartzen zituen menturaz Georges Lacombe, Hugo Schuchardt, bere "jainko ttipia", P. Lerfitte dion bezala, eta Uhlenbeck holandiar linguista handia: Biekin harremanetan izan zen bizi guzia. Bien lan batzuen bazituen 14-18 eko gerla aintzin, frantsesera berak itzuliak eta R.I.E.V. argitaratuak. Bainan gero zorigaitzeko gerla etorrizen.

1914 eko ekainaren 17 an, gerlaren bezperan, Georges Lacombe Piarres Broussaini salatzen dizkio bere xedeak eta

planak: Jean Etchepare orduan Alduden mediku den euskalariaren laguntzarekin Letretako dotorgoa ari du prestatzen Aldudeko euskarari buruz. Bere oharrak sailkatu ditu: hizte-gizkoak alde batetik ezarriz, gramatikazkoak bestetik. Gutun berean aipu ditu Vinson, Saroihandy, Winkler, Trebitsch eta Van Eys, orduan hil berria. Uhlenbeck aldiz Euskal Herrian egon-aldi bat egitera nahi luke bildu. Henri Bergson filosofo ezaguna Frantses Akademiara deitu baitute, haren sartzeko hitzaldia heleraziko dio... emanen duenean. Erromako elizak ordea bere "Index" eko liburu gaiztoen zerrendan sartu omen ditu jakintsun handi horren idazki nagusiak: "Hanbat hobe, funtsean - dio Lacombe bere adixkideari - beti Inkisizioaren mendean bizi baikara, "ecclésiastiquement parlant", ". Azke-nean Hazparneko jaun mediku euskaltzaleari galdatzen dio, ez ote lituzkeenetz bere alaba Jenofa tipiaren lehen hitzak artoski bildu nahi, nehork ezpaituke lan holakorik egin oraino Euskal Herrietan.



G. Lacomberen omenaldia. Baiona 1976-1-26.

“Carpe diem, carpe horam, dies brevis est, oportet boulotare(sic)”, “Goza ezak eguna, goza orena, laburra baita eguna. Behar diaguk egin lan...”, idazten zion ondoko aldian adixkide berari (Angoulême-tik 1914 eko aboztuaren 30 ean), bainan 1916 eko uztaillean, Lorrenako mugetan, gure Georges Lacombe itsuski kolpatua zen eta beso bat ere galtzen zuen.

Hilabetea gabe, aboztuaren 11 an, Amiens-eko ospitale-tik, berriz idazten dio Hazparneko auzapez adixkideari, eskerak bihurtzen dizkiola igorri goxokerien gatik. Uhlenbeckez mintzo zaio eta Baionako Euskaltzaleen Biltzarraz eta oraino trebe ez izana gatik, esku ezkerrez berak sinatzen du “G. Lacombe”.

Gerla ondoan berriz hartzen du gure euskalariak R.I.E.B.en idazkaritza. Aldudera ere itzuliko da hango euskalariaren lantzeko: 1918 ko abendoaren 21 ean Martin Landre-rtcheri idazten dio 600 orrialde badituela bilduak, hizkelki horren fonetikaz, morfologiaz eta hiztegiak. Eta Hazparneko Herriko Etxean, 1921 eko martxoaren 8 an, euskaltzain sartzeko egunean, Azkuek erraiten dio berari: “Betorkigu argitara len bai len ta ordu onean Aldudeko euskera” (“Euskera” 1920-1921, II - 2, or. 63). Bainan Lacombe hil ondoan, Henri Gavelek paper hoik bilatuko dituenean, bizpalaur ehun fitxa doi-doia aurkitzen ditu, 10 bat orrialdetan argitaratzen dituenak: “Les notes de Georges Lacombe sur le basque des Aldudes” par H. Gavel, “Eusko-Jakintza” 1947, 1952, VI, 1-10.

Badakigu ere 1930 ez geroz Ziberoko euskalkiei buruz itzuli zela bereziki Georges Lacombe, bizkitartean Telesforo Monzonek etzuen horrelako lanen hatzik hatzeman, haren bibliotekaz jabetu zelarik.

Azkenean, bizpalaur hilabete hil aintzin, 1947 eko apirilean, Jose Migel Barandiaranek abiatu zuenean “Eusko-Jakintza”, hogoita hamar bat artikulu bazauzkala gogoan idatzi zion Lacombe. Zorigaitzez bat bakarrik zuen burura ereman, bere azkena, Sen Matiuren itzulpenez, “Eusko-Jakintzak” atera zuena (“Eusko-Jakintza”, 1947, I, or.494, J.M. Barandiaranen oharra).

Bere euskaltzain sartzeko hitzaldia egin zuelarik Hazparnen Georges Lacombe, erasiak egin zizkion “Eskualdu-
nean” Jean Etchepare adixkideak, baizik eta horrelako

hitzaldi batek hogoi edo hogoitabost orrialde eskatzen zituzkelarik, harenak etzauzkala sei baizik ("Eskuara" in "Eskualduna", 1921, XII, 30). "Euskaltzaindiari ospe gehiago behar zitzaion erakutsi... Broussain baten bizia xehetasun gehiagoren gai ere zen", berriketariaren arabera.

Guk orai berdin xehetasun eta ospe gehiago zor genioke Georges Lacombe euskaltzain zenari, baina gure ustez gure sei orrialdeak bete ditugu eta funtsean guk ez bezala ezagutu dutenek zerbait erranen dukete. Gaiten beraz gaurkotz ixil.